



**2017KO URRIAREN 6KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urriaren seian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Aktan adireraziko da Ane Irastortza Izagirre zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko irailaren hogeita biei egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Ane Irastortza zinegotzia bertaratzen da.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 94 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, **BERROGEITA BAT MILA BOSTEHUN ETA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (41.519,53 €)**takoa onartzea erabakitzen da.


**III.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOAK.-**

- Arratoiak eta insektuak hiltzeko zerbitzua.-

Udal honek, 2014ko urriaren 3an egindako tokiko gobernu batzarraren bilkuran, eta Gipuzkoako Erosketen Zentralak egindako esleipenari jarraituz, arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzua emateko kontratua 2 urterako Técnica Sanitaria Ambiental S.L.ri esleitzea erabaki zuen.

Gipuzkoako Erosketen Zentralak 2016ko urriaren 19an baimendu zuen esparru akordioaren lehen luzapena eta orain, kontratu horren 2. luzapena planteatzen da eta, dagokion izapideak egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantzako eta Gizartearekiko Komunikazioko Departamentuko Foru Diputatuak, 2017ko irailaren 8ko Agindu bidez, "Foru Kontratazioen Zentralaren bidez arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzua kontratatzeko Esparru Akordioa (X14006)" beste urte betez luzatzea baimentzea ebatzi du.

Guzti hau horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, udal honek Técnica Sanitaria Ambiental S.L.rekin arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzurako daukan kontratua beste urte betez luzatzea ebazten du.



IV.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kiroletako batzordeburuak aurkeztutako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako diru laguntza hauek onartzea erabakitzen du:

- Antzar Korrikalariak.-

Uztailaren 8an antolatutako III. Antzar Triatloi Eskolarrarengatik, 275€ko diru laguntza ematea.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

